



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deliua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OCAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antonin, GOICOECHEA Inaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OCAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Eiorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Delatziaren eguna : 2023ko apirilaren 28a

Afixatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

9. ERABAKIA: HERRIKO MURGIALDEKO BIDEKO ZATI BATEN BESTELA SAILKATZEA ETA ALIENATZEA F 420 eta F 421 LUR SAILETAN

(3.5 nomenklatura)

HONAKO ERABAKIAK 2023KO APIRILAREN 4ean GAI BERARI BURUZ HARTU ZEN ERABAKIA INDARGABETU ETA ORDEZTEN DU.

Auzapezak azaldu du, 2021eko urtarrilaren 8ko erabakia segituz, non herriko Murgialdeko Bideko zati bat lekuz aldatzeko eta lehengo eremua bestela sailkatu eta alienatzeke proposamena egin den, 2022ko maiatzaren 16ko ordenantza bidez izendatu duen Pierre Laffore inkestia komisarioari eskatu diola inkestia publiko baten egitea.

Txosteneko agiri guztien berri ukanik; inkesta denboran bildu adierazpen, ohar eta erreklamazioak eta inkesta-komisarioaren ondorioak irakurrik;

Legeak behartzen dituen izapide guztiak bete direla kontuan hartuz;

Proiektuaren kontrako erreklamaziorik egin ez dela kontuan hartuz;

Inkesta komisarioaren aldeko iritzia kontuan hartuz;

ARRAZOI GUZI HORIENGATIK,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU:

- Herriko Murgialdeko Bideko zati baten lekuz aldatzea,
- lehengo eremuaren bestela sailkatzea eta alienatzea,
- guztia erantsia den katastro planoaren arabera;
- lurren okupazio berriarentzako beharrezkoak diren 211 ca-ko Isabelle Argain Echaide anderea jabe den eta Jean Aphessetche jaunak, gozamen eskubidea duen F 430 (sail zenbaki berria: F 1534, 152 ca), F431 (sail zenbaki berria: F 1536, 56 ca), F 421 (sail zenbaki berria: F 1531, 3 ca) sailen eskuratzea;

- lehengo 292 ca-ko azalera Isabelle Argain Echaide anderea jabe den eta Jean APHESSETCHE jauna, gozamen eskubidedunari (sail zenbaki berria: F 1537) uztea;
- Isabelle Argain Echaide andere jabearekiko eta Jean APHESSETCHE jauna, gozamen eskubidedunarekiko eragiketa trukaketa bidez eginen dela, pribatuek honako zenbatekoa ordainduz: 12.15 euro (0.15 euro/m² x 81 m²);

Auzapezari **ESKATU DIO** ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guztien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea, eta horretarako salmenta agria egitea.

ZEHAZTU DU, notario edo administrazio gastuak eskaera egin duen norbanakoaren gain direla.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 14
KONTTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hila bete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OCAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.